

# H1 gaztelania → H2 euskara: ahoskera zailtasunak eta irakaskuntzarako proposamen baten hasiera

Gradu Amaierako Lana

---

Egilea:

Joanes Esturo Etxabe

EUSKAL IKASKETAK GRADUA

2018-2019

Tutorea:

Miren Lourdes Oñederra Olaizola

EUSKAL IKASKETAK ETA  
HIZKUNTZALARITZA SAILA

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

## Laburpena

Hurrengo lerroetan, euskararen ahoskeraren irakaskuntza modu eraginkorrean bideratzeko gogoeta egin da. Horretarako, lehendabizi, helduaroan bigarren hizkuntza bat ikastea behar bezalako ahoskera lortzeko izaten diren arazo nagusiak zein diren azalduko da, arazo horietan bilakabide fonologikoez eta prosodiak duten zeresana zein den zehazturik. Jarraian, euskararen irakaskuntzan, bereziki, bigarren hizkuntza bezala irakastea ahoskerak duen lekua zein den jakingo dugu, Sagrario Alemanen esperientzian oinarrituta.

Lanaren bigarren atalean, gaztelaniaren eta euskararen paradigma fonologikoen erkaketa saio bat egin da baterean ahoskeratik bestearenerako jauzia neurtzeko helburuarekin. Horrela, ahoskerari dagokionez, euskararik ez dakiten Euskal Herriko gaztelania hiztunek euskara ikastea izango dituzten zailtasunak zein izango diren arakatu da. Zailtasun horien analisia egiteko Fonologia Naturalaren analisi bidea hartu da. Ikuspegi esplikatzailerak izanik, hiztunek erabiltzen dituzten formen, hizkuntzek egiten dituzten aukeren, eta abarren atzetik beti arrazoiren bat dagoela pentsatuta horiek azaltzeko bidea ematen baitu.

Analisia ahoskeraren hiru maila nagusitan banatu dugu. Lehenik, maila fonemikoan bilakabide ingurunegabeen eraginak aztertu dira, horrela, euskarak gaztelaniarekiko ez dauzkan fonemak zein diren ikusita horiek bereganatzeko zailtasunak aurkitzeko. Bigarrenik, maila sintagmatikoan gaztelaniatik euskararako bidean bilakabide ingurunedunek sor ditzaketen zailtasunak gutxi (edo bat ere ez) direla ikusi da. Hirugarrenik, bi hizkuntzen eredu prosodikoen artean alderik nabarmenena azentuerak sortzen duela erakutsi da.

Proposamenaren atalean, irakaskuntzarako estrategia didaktiko bat proposatzeko, erabaki da aurren prosodian jarri behar liratekeela indarrak; prosodia ahoskeraren eragile nagusia delako. Horrenbestez, euskararen prosodia egoki bat lortzeko hiztun berriei ahoskera esaldi mailan irakatsi beharra aldarrikatu da Oñederraren hainbat lanekin bat eginez. Eta ahoskera lantzeko metodo egokiena prosodia aintzat hartzen duen irakaskuntza litzatekeela iritzi da, esaterako, egun euskaltegi aurreratuenetan ahozotasuna ardatz hartuta hizkuntza lantzen dutenena.

Azkenik, euskara bigarren hizkuntzat ikasiko duten gaztelania hiztunen irakaskuntza bideratzeko asmoarekin, gaztelaniak ez dauzkan euskararen hotsen arteko lehentasunak zehaztea mesedegarri jo da. Horrenbestez, lehentasunak zehazteko irizpideen gainean eztabaidatu eta, irizpide horien arabera, txistukariekin

adibibide praktiko bat eman da. Amaitzeko, lehentasunok hiztun berriaren gaitasun maila ezberdinetan banatuta proposatu dira, horrek ahoskera, egokieraren arabera, hizkera mailetara moldatzeko bidea erraz baitiezaioke ikasleari.

## **Aurkibidea**

1. Atarikoa .....	5
1.1. Bigarren hizkuntzen ahoskera.....	5
1.2. Prosodiaren garrantzia ahoskeraren irakaskuntzan.....	7
1.3 Euskararen ahoskera irakasten al da? .....	8
2. H1 gaztelania → H2 euskara. Ahoskerako zailtasunen analisia.....	10
2.1. Alde fonemikoak (bilakabide ingurunegabeak).....	11
2.2 Bilkuretako bilakabideen (ingurunedunen) aldeak .....	16
2.3. Prosodia ereduaren aldeak .....	19
3. Proposamen teorikoa.....	21
3.1 Euskararen ahoskera prosodia aintzat hartuta lantzea .....	21
3.2 Ahoskeraren irakaskuntzarako fonemen arteko lehentasunak.....	22
4. Ondorioak .....	28
Erreferentziak.....	30

## 1. Atarikoa

Euskalduntzea eta euskararen estandartzea ezinbesteko dira euskararen biziberritze eta normalizatzeko helburu orokorrerako. Lan hau testuinguru horretan kokatu nahi litzateke, euskal lurraldeetako gaztelania hiztunen euskalduntzean, hain zuzen ere, horien euskararen ahoskeraren irakaskuntzan.

Oñederra irakasleak aurtengo Euskaltzaindiko *Eta ahoskera zer?* jardunaldian esan zuenez, ahoskerari ez zaio behar besteko arretarik eskaintzen:

Hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko jardueretan, gai horien inguruko argitalpenetan, are ahozkoaren irakaskuntzan ere ez da nabarmentzen kezkarik ahoskeraz. Orokorra bide da erlatiboki ahoskerari hizkuntzaren gainerako atalei baino garrantzi gutxiago emate hori (Rindal, 2013). Euskararen eremuan, ordea, kalte handiagoa dakar horrek, hizkuntza ez dagoelako normalizatua, hiztunek bestelako lehen hizkuntza bat (ere) badutelako ahoskera sendo estandartua duena. (Oñederra, 2019: 3)

### 1.1. Bigarren hizkuntzen ahoskera

Hala, berdin helduen bigarren hizkuntz ikaskuntzan zein eskoletako umeen irakaskuntzan, askoz garrantzi handiagoa ematen zaio gramatikari ahoskerari baino (Oñederra, 2004: 82). Izan ere, ahoskera irakastea zaila den ustea zabaldua dago gure artean, baina horren atzetik dagoena ahoskerari behar besteko garrantzirik ez ematea izan daiteke. Esaterako, Cuenca Villarínek (2019) Euskaltzaindiko jardunaldi berean esan zuen maiz ahoskera lantzea denbora galtzetzat hartzen dela, eta eskoletan horretarako aski denbora ez izatea ere argudiatzen dela. Halaber, ahoskera lantzeko orduan irakasleek ez dute jakiten zertan oinarritu. Cuenca Villarínek (2019) gaineratu zuen bezala ikerketak gero eta landuagoak eta hizkuntzalaritzak ateratako ondorioak gero eta gehiago diren arren, ez da jakin horiek ikasgelara eramaten.

Haatik, ahoskerak berebiziko garrantzia du, ahoskera egokia izateak hiztunari eremu kognitibo eta psikolinguistikoan ziurtasuna ematen diolako, baita jatortasuna ere, hiztun batengandik jasotzen dugun lehen inpresio edo itxura ahoskera bera baita (Rindal, 2013 eta Šimáčková & Podlipský, 2015 apud Oñederra, 2019: 1). Era berean, H2<sup>1</sup> batean dugun ahoskera izaten da sarritan hizkuntza hori jendaurrean egiteko lotsa sentiarazten diguna.

Hain zuzen ere, H1eko ahoskeraz H2ko kontsonante eta bokalen ahoskera, prosodiaz batera, moldatzeko joera dago. Heldutan bigarren hizkuntza bat ikastea ahoskera egokia

---

<sup>1</sup> Erabiliko diren laburdurak: H1 = lehen hizkuntza, H2 = bigarren hizkuntza, C = kontsonantea, R = ozena, (N = sudurkaria), S = txistukaria, T = herskaria, (D = herskari ahostuna), V = bokala.

lortzea zaila da, ez da behintzat *critical age*<sup>2</sup> delakoaren aurretik bezain erraza, jabekuntza-adina eragileetako bat baita, hau da, hizkuntzaren sistema fonologikoaz arazorik gabe jabetzeko aski gazte izatea hobe da. Esan nahi baita, hiztun helduak haurtzaroan moldatutako hizkuntzaren ahoskera izanik, horrezkero, oharmen zein ekoizpen gaitasuna lehen hizkuntzaren sistemaren inguruan zurrunduta edukitzen ditu. Izan ere, beste hizkuntza baten ahoskera bereganatzeko, lehendabizi, hiztun helduak oharmena fonetikoki “berrafinatu” beharko du, eta kategoria fonologikoak berrantolatu; eta, ondoren, ahots aparatuen mugimendu-aginduak ere berriro programatu beharko ditu behar bezala ahoskatzeko (Oñederra, 2004: 48).

Lan honetarako hartu den Fonologia Naturalaren marko teorikoan, hiztunak jabekuntzaren lehen urratsetan ingurunegabeko *fortitio* bilakabideen bidez osatzen du bere inbentario fonemikoa. Horrelako bilakabide fonologikoek tasun fonetikoaren konbinaketa onena bermatzen duten aldetik, murriztu egiten dute hiztunaren oharmenean gerta daitezkeen hotsen multzoa (Donegan, 1995: 63), hiztunaren oharmenean posible diren hots horiek baitira fonemak:

Según la Fonología Natural, el inventario fonémico está formado por todas aquellas unidades que el hablante puede memorizar (para formar palabras), percibir (para distinguirlas en aquello que oye) y para programar (para poder hablar). El fonema es pues aquella unidad mental de percepción e intención (*Lautabsicht, Lautvorstellung, Lautidee*) definida por Baudoin de Courtenay en 1895. (Oñederra, 2012: 141)

Ondorioz, bigarren hizkuntzen ikasketan, hiztunaren fonema inbentarioarekin egokitzen ez diren H2ren hotsak ez dira hautemango. Izan ere, hizkuntzaren jabekuntzan, hizkuntzak nahitaezko dituen hots-bereizkuntzak bermatuko dizkion bilakabideak besterik ez dira atzentzen: “[i]n learning to pronounce a language, the speaker learns to overcome *only those constraints his language requires him to*” (Donegan, 1995: 64; etzana gurea). Hartaz, esan daiteke, jabetze berantiarrean hiztun bati fonema mota bat falta bazaio, fonema horri legokiokeen tasun konbinaketaren beharra beranduegi iritsi zaiola, aurrez esan bezala, horrezkero oharmen edo ekoizpen gaitasuna H1aren sistemaren inguruan zurrunduta edukiko duelako. Horrenbestez, bigarren hizkuntzen ikasketan, arazoak H1ek atzendu ez dituen bilakabideak H2n atzendu behar direnean sortuko dira. 2. atalean sakonduko dugu hori.

---

<sup>2</sup> Hizkuntzaz jabetzeko adinaren epe edo muga (Oñederra et al, 2014).

Jada aipatu dugu fonemak bilakabide ingurunegabeen emaitza direla. Fonema batzuek tasun fonetikoaren bateragarritasun onenaren murriztapenei men egiten diete. Esaterako, bokaltasuna ahokaritasunarekin konbinatzea optimoa izanik, bokaltasuna sudurkaritasunarekin batera gertatzearen zailtasuna saihestea helburu duen bilakabide ingurunegabe baten emaitza dira bokal ahokariak. Bilakabide horri men egiten dieten hizkuntzek, beraz, beren fonema inbentarioan bokal ahokariak baino ez dituzte izango.

Aldiz, beste batzuk, hizkuntzaren behar linguistikoaren arabera, tasun fonetikoaren konbinazio onenaren murriztapenak gaintuz edo atzenuz bereganatzen ditu hiztunak. Halako fonemak bereganatzeko egiten diren bilakabide ingurunegabeen ukatzeak, ez dira onuragarri izaten alderdi fonetikotik, tasun fonetikoak ekoizteko modu zailago batean eta oharren ondorio txarragoekin lotu behar izaten dira eta. Besteak beste, hizkuntza batek trabari ahoskabe eta ahostunak bereiztea trabariak ahoskabe izatearekin konbinatzen dituen *fortitio* bilakabide ingurunegabe bat gaintu izanaren ondorioztat azaltzen da. 2.1 atalean ikusiko dugunez bilakabide hori gainturik dute euskarak eta gaztelaniak.

## 1.2. Prosodiaren garrantzia ahoskeraren irakaskuntzan

Fonologia Naturalaren teoriagile nagusi diren Donegan eta Stampek prosodia ahoskeraren eragile garrantzitsua dela diote, hizkuntza hizketa bihurtzeko ezinbestean prosodikoki gauzatzen baita:

The application of prosodic processes is *the most important factor* in the living phonological pattern of a language and its long range phonological ‘drift’; the selection of segmental processes is largely determined, even in childhood, by the way segmental representations are mapped onto prosodic structure in speech. (Donegan & Stampe, 1979: 142; etzana gurea)

Gil Fernándezek ere prosodiaren barruan erritmoaz ari dela azpimarratzen du haren garrantzia:

[E]l ritmo, que, como los demás, no sólo alcanza una relevancia significativa enorme en el buen desarrollo de la comunicación inter-hablantes sino que también tiene una gran transcendencia práctica inmediata, al influir notablemente en la articulación de los segmentos y ser, por lo tanto, un recurso valioso para la corrección fonética. (Gil Fernández, 2007: 261-262)

Ahoskeraren irakaskuntzan gauza jakina da nola eramaten den H1aren prosodia (doinua, erritmoa, azentu kokatzea, eta abar) H2ra. Horregatik, esaten dugu batez ere urliak “kanpotar” azentua duela. Esan dugunez, bigarren hizkuntzen ikasketan behar bezalako ahoskera lortzea ez da batere erraza. Hala ere, norberaren jatorrizko hizkuntzaren prosodia “ahaztea” horren zaila izanik, euskal hiztunok baturako bidean

gure jatorrizko dialektoetako prosodia “ahaztea” ez zaigu hainbeste kostatu. Oñederrak (1998) gai hori landu zuenean azaldu zuenez: batua ikastea ikasitako gramatika erregelak, hitzak eta letrak, hizketa bihurtu behar izan direnean euskararen esaldikako azentuera egin beharrean eredu prosodiko berri bat zabaldu da. Prosodia horrek azentua hizka banatzen du, esaldi edo sintagmaka baino, eta azentua azken aurreko joeraz kokatzen du erregulari. *Gaztea* deitu zion azentu erregular, erraz eta nabarmena duen prosodia berriari. Orduetik hona, zahartuko zen, oraindik ere batuaz gabiltzanean kosta egiten baitzaigu prosodia horretatik ihes egiten eta gauza bera gertatzen zaie hiztun berri askori zein horien eredutik ikasten dutenei.

Oñederrari (2019: 4) jarraituz “hemendik aurrera, zerbait egin baliteke oraindik, irakaskuntzan legoke itzaropena”. Bere esanetan, euskarak euskalkietan duen prosodia mantendu behar luke eta hori irakatsi beharko litzateke hiztun berriei ere. Era berean, euskara haurtzarora igaro aurretik ikasi dutenek beren prosodia gorde eta edozein hizkera mailatan erabil dezaten bermatu behar da. Besteak beste, hortaz ariko gara 3.1 atalean.

### **1.3 Euskararen ahoskera irakasten al da?**

Atal hau osatzeko ezinbestekoa izan da Sagrario Aleman euskaltzain osoaren laguntza. Aleman anderea Arturo Campion Euskaltegiko zuzendaria eta bertako irakaslea da. Harekin izandako elkarrizketan oinarrituta idatzi dira ondorengo hitzak eta gogoetak, oro har. Beraz, haren prestutasunagatik esker onez hastea dagokigu.

Euskararen irakaskuntza ia guztia idatzian oinarritu izan da gaur arte (Marin, 2015: 471). Gramatikak eta lexikoak hartu ohi dute pisu gehien. Horrela, ahoskera idatziaren atzean geratu da, lexikoaren eta gramatikaren menpe.

Aleman anderearen bidez jakin dudanez, ahoskera bera lantzeko berariazko ariketek oso toki txikia hartzen dute ikasturteko programetan. Beharbada, hori orokortzea ez litzateke komeni, baina, haren arabera, euskara H2tzat irakasten den ikastegietan ahoskera berariaz gutxi lantzen da. Dena dela ere, lan sistematikoago baterako, gaia sakonago aztertu beharko litzateke ikastegi horietako material eta ikasturte osoko programazioak behatuta. Oraingoz, badirudi ikasturtean zehar egiten denaren ehuneko oso txiki bat baino ez zaiola eskaintzen ahoskerari. Presentzia txikia izan ohi du, beraz, ahoskerak irakaskuntzan.

Klaseko parte hartzeetan, kasuan kasuko ahoskera oker baten ondoren, irakasleak ikasleei egindako zuzenketak izaten dira salbuespen ohikoenak. Hala ere, gutxi izanagatik, hasierako mailetan zuzenketez gainera, ohikoak dira alfabetoa ahoz gora



irakurtzeko eta aho korapiloak egiteko ariketak ere. Horiei dagokienez, esan behar da, euskaraz alfabetoa ahoskatzen ikasteak mesede egin dezakeela letra hots identifikazio okerrak saihesteko. Idatzizkoa nagusi denean, ordea, bost minutuz ariketa hori egitea ez da aski izango; norberaren biltegi fonemikoa hizkuntza berri batenera birprogramatzea ez baita hain erraz lortzen. Aho korapiloak lantzeko ohitura bera ere abantailatsua izan daiteke euskaraz ahoskatzeko arazoak sor ditzaketen hotsak lantzeko, esaterako, txistukariak apikari eta lepokari bereizteko. Baina ez ote dira gehiago jolas edo txapelketa modura hartu ohi, ahoskera berariaz eta intentzionalitatez lantzeko baino?

Gorago aipatu da euskara H2tzat irakastean idatzian oinarritutako metodologiak nagusi izan direla ikastegi gehienetan, eta hala da oraindik ere tituluak ematen dituzten hizkuntza azterketei begira lantzen denean (Oñederra, 2019: 4). Hala ere, zenbait euskaltegik ahozkoari garrantzi gehiago ematen diote. Hau da, hiztunak eguneroko hizkuntzan ahoz beharko dituen baliabideak lantzeari begira irakasten dute euskara. Metodo horrekin ari dira, besteak beste, IKA euskaltegietan (Sagrario Aleman zuzendari den Arturo Campion euskaltegia euskaltegi talde horretakoa da).

Horrela, hiztun berriek hizkuntzarekin harreman naturalago bat izan dezaten, hasiera hasieratik ahozkoasunaren bidetik lantzen dute hizkuntza eta, ikasketa prozesuan aurrera egin ahala, idazkerak pisu gehiago hartzen du. Metodo horren arabera, euskara ikasten ari direnek hitz egin dezatela nahi bada, ahozkoak behar du garrantzia hartu eta ikasleei, lehen urratsetan bederen, esanarazi eta hitz eginarazi behar zaie, ez hainbeste idatzarazi. Hain zuzen, hori bera azpimarratu zidan Aleman andereak “hizkuntza bat ikasteko belarria eta mingaina erabili behar ditugu, begia eta eskuak baino”.

Arreta berriro ahoskerara ekarriz, euskararen irakaskuntzan, esana dugu ahoskera, berariaz, gutxi lantzen dela. Horrekin esan nahi da ahoskerari zuzenean lotzen zaizkion ariketa gutxi egiten dela, baina, hizkuntza IKA euskaltegietan bezala era komunikatiboan ikasteak berariaz ahoskera landu ez arren, ezinbestean ahoskeraren presentzia areagotzen du. Horrela, ahoskera gehiago eta modu eraginkorragoan lantzen da. Gehiago landuko da hasieratik ikasleak hizkuntza entzunez hautemango duelako, eta eraginkorragoa izango da ikaslea hizkuntzan mentalki eta fisikoki parte hartzera (Oñederra, 2019: 4), ahoskatzera, behartzen duelako. Gainera, ikasleak ahoskera okerren bat egitean irakasleak zuzendu eta ikasleari errepikarazteko aukerak ere ugaritzen dira.

Ikasketa metodo honetan irakaslearen papera nabarmentzen da. Izan ere, ikasleek hizkuntza irakaslearen bidez jasotzen dute. Hala, bai hotsen ahoskera bai azentuera, irakaslearena ikasten dute. Besteak beste, horrek euskara prosodia egoki batean ikasteko

modua ematen du. Honela adierazi zidan Aleman andereak: “lehenbizi entzun egiten dute eta gero errepikatu. Horrela, nik uste dut modu aski naturalean sartzen zaiela ahoskera eta esaldiaren kadentzia edo doinua”.

Aipatu berri dena ahozkotasuna ardatz duen hizkuntzaren irakaskuntzak duen abantailetakoa bat da: irakasleek hotsak eta esaldiak egoki ahoskatzen badituzte, erabiliaren erabiliaz ikasleek hots gehientsuenak eta esaldien doinua ongi bereganatzeko aukerak ugaritzen dira. Ahoskera berariaz landu beharrik izan gabe alegia (ikus. 3.1).

Baldintza hori betetzen ez bada, baina, honelako egoerak gerta daitezke: Iruñeko Arturo Campion euskaltegian, antza denez, nahiz eta irakasleak saiatzen diren <j> euskaraz ingurunearen arabera [j] edo [j] sabaikari ahoskatzen, [x] ahoskera belarra gehiago egiten dutenez, ahoskera hori nagusitzen da ikasleengan ere. 3.2 ataleko *h*) puntuan aintzat hartuko da hori.

Bestalde, Aleman andereak azaldu zidanez, ikasle hasi berriei hots batzuk ahoskatzea beste batzuk baino gehiago kostatzen zaie, adibidez, <tz> eta <x> idazten direnak. Biak [tʃ] afrikatu sabaiaurrekoarekin ahoskatzeko joera omen dago hasieran, baina aurrera egin ahala zailtasun horiek gainditzen omen dituzte. Gehien kostatzen zaien hotsa <t> idazten den herskari sabaikari ahoskabea, [c], dela ere zehaztu zidan, baina erabili ere hitz gutxiagotan erabiltzen da. Lanean aurrerago (2.1 eta 3.2 ataletan) helduko diogu gai horri.

## **2. H1 gaztelania → H2 euskara. Ahoskerako zailtasunen analisia**

Atal honen helburua gaztelania H1 duen hiztunak euskara H2ra jauzi egitean aurkituko dituen zailtasunen analisi teoriko bat egitea izango da Fonologia Naturalaren ikuspegitik. Horretarako, lehenbizi, hizkuntza batetik bestera dauden alde fonemikoei helduko diegu. Gero, bigarren azpiatala bilkuretako gertakariei eskainiko zaie, azkenik gaztelaniaren eta euskararen eredu prosodikoen alde nabarmenenaz, azentueraz, labur-labur jarduteko.

Bilakabideez ari garela aldakortasun dialektal eta estilistikoez gaindi ariko gara, horiek tarteka aintzat hartu arren; bi hizkuntzen erkaketa egiteak izango baitu lehentasuna. Hala ere, kasu guzti-guztiak jasotzen dituen erkaketa oso bat egin baino, nabarmenenak diren aldeak bilduko ditut. Esan bezala, helburua ikaslearen zailtasuna non eta zergatik egongo den azaltzea izango da, zailtasunok fonetikoki tasunen konbinaketa bezala ikusita.

## 2.1. Alde fonemikoak (bilakabide ingurunegabeak)

Inbentario fonemikoak diruditen taula hauek ez dira zentzu hertsian gaztelaniaren eta euskararen inbentario fonemikoak. Lehenengoa, euskal lurraldeetan egiten den espainiera H1 moduan duen hiztunak leukakeen inbentario fonemikoa da. Espainieraren aldaera horretaz aritzeko hemendik aurrera *gaztelania* erabiliko da.

<sup>3</sup>	Biezpainkari	Ezpain-horzkari	Horzkari	Hobikari	Sabaiaurreko	Sabaikari	Belar
HERSKARI	p b		t d			j <sup>4</sup>	k g
IGURZKARI		f	θ	s			x
AFRIKATU					ʃ		
SUDURKARI	m			n		ɲ	
ALBOKARI				l			
DARDARKARI				r			
ttak				r			

1. taula. Gaztelania H1 hots inbentarioa.

Euskara H2tzat irakatsiko zaiola kontuan hartuta, euskaltegi edo hizkuntza eskola gisako ikastegi batean, euskara batua da ikasleak ikasiko duen euskararen aldaera. Hori da, behintzat, *a priori* aukera ez markatua eta lehen hurbilketa teoriko bat egiteko lan honetan ontzat hartuko dena. Ikerketaren lehen urratsa emateko behar beharrezko zaigu alderdi praktikotik horrela egitea, baina ikerketan aurrerago joatekotan, egoera erreal bakoitzera zehatz egokitu beharko litzatekeen.

Oraingoz, irakaskuntzaren helburuko hizkuntza euskara batua harturik horren ahoskera zaindurako onartzen diren hots orokorrenekin<sup>5</sup> osatutako ondoko taula honekin egingo dugu aurrera. Bigarren taula honek, beraz, ez du adierazten gaurko hizkera ezberdinetako euskal hiztunek euskararako fonema horiek (berberak, gehiago edo gutxiago) dituztenik.

<sup>3</sup> Taulen antolaketa Oñederra irakaslearen *Fonetika eta fonologia II*ko eskoletatik hartua da. eta Artikulazio moduez eta ahoskunez gain, hots trabariak eta ozenak (marra lodiz) bereizten ditu.

<sup>4</sup> Oñederra irakaslearen irizpideari jarraitu naitzaio, behin behineko proposamena izan arren sistema fonologiko osoa aintzat hartzen baitu eta lan honetarako aski zaigu hori. Trabari oinarritzkoenak herskari direla irizpide hartuz gero, igurzkari sabaikaria herskariaren inguruneak eragindako jarraitutzat (alofonotzat) azal liteke. Hala ere, sabaikariekin ingurune-banaketa baldintzak beste trabari ahostunekin bezala ote diren b/β, d/ð, g/ɣ, j/j begiratu behar litzateke. Gehiago jakiteko ikus (Oñederra, 2012: 140)

<sup>5</sup> Hortik at utziaz, Iparraldeko ahoskera zainduan onartu arren orokorrak ez diren, /h/, /y/ eta herskari hasperendunak.

	Biezpainkari	Ezpain-horzkari	Horzkari	Hobikari	Sabaiaurreko	Sabaikari	Belar
HERSKARI	p b		t D			c j	k g
IGURZKARI		f		ʒ ʒ̃	ʃ		x
AFRIKATU				tʃ tʃ̃	ʃ̃		
SUDURKARI	m			n		ɲ	
ALBOKARI				l		ʎ	
DARDARKARI				r			
ttak				r			

2. taula. Euskara H2 hots inbentarioa.

Maila paradigmaticoan, bilakabide ingurunegabeen banaketaren ondorio diren inbentarioetan aldeak ez dira horren handiak. Esan daiteke tasun konbinaketa fonetikoki onen aldeko direla, bai euskara eta bai gaztelania (bigarrena gehienbat). Alde horretatik, hizkuntza biek fonema inbentario erlatiboki murrizta dute ingelesaren edo frantsesaren aldean adibidez. Egungo gaztelaniaren eta euskararen fonema inbentarioek, oro har, aukera antzekoak erakusten dituzte. Besteak beste, bi hizkuntzek bost bokal /i, e, a, o, u/ dituzte bakarrik eta bostak ahokari dira, gainera. Kontsonante ozenak ahostun dira eta trabari gehienak ahoskabe.

Hala ere, euskarak eta gaztelaniak bilakabide natural eta unibertsal erlatiboki gutxi batzuk bortxatu egiten dituzte inbentario fonemikoa aberaste aldera. Gogoan izan behar da Fonologia Naturalaren marko teorikoan bilakabide naturalak, fonetikoki motibatuak izanik, unibertsalak direla eta hizkuntza batek bilakabide bati amore ematen dionean hotsen kontrasterako aukera bat galtzen duela (Oñederra, 2004: 51). Horregatik, hizkuntzek (duten behar linguistikoari erantzunez) zenbait bilakabide gainditu egin behar izaten dituzte hots unitateen arteko bereizkuntzak egiteko. Hala nola, herskari ahostunak izateko *trabari* + *ahoskabe* tasun konbinaketa fonetikoki onena gainditu dute euskarak eta gaztelaniak.

Bi hizkuntzonen arteko alderik handiena igurzkarien eta afrikatuen sailean aurkitzen dugu, zehatzago esanda, *txistukari* deitu ohi direnen artean. Gaztelaniak bi txistukari baino ez dauzka, aldiz, txistukari gehien bereizten diren euskal hizkeretan sei txistukari daude (euskara batuaren ahoskera zaindurako gomendatzen diren berberak). Gorago, inbentarioen azalpenean adierazi bezala, eredu abstraktu hori hartu da erreferentziazat lan honetarako, inbentario kuantitatiboki maximoa aintzat hartuz.

Horrela bada, euskarak bina hobikari ahoskabe ditu igurzkari eta afrikatuen sailetan. Horiek artikulatzerakoan mihi punta edo mihi lepoa erabilita, /s̺, t̺/ apikariak eta /s̺, t̺/ lepokariak bereizten ditu hurrenez hurren. Gaztelaniak ez du hobikaria den afrikaturik eta igurzkari bakarra du ahoskune horretan: /s/. Hortaz, ez du lepokariaren eta apikariaren arteko bereizketa fonemikorik. Sabaiurrekoen artean, euskarak /ʃ/ igurzkaria, nahiz /tʃ/ afrikatua ditu; gaztelaniak afrikatua baino ez.

Orain arte esandakoarekin, euskarak txistukarien artean gaztelaniak baino bereizkuntza fonemiko handiagoa duela ikusi dugu. Ahoskuneari dagokionez, eremu erlatiboki txikian (hortzobietatik sabaiaurrera bitarte) eta mihiaren ebakera (apikari/lepokari) ezberdinekin tasun konbinaketa konplexuagoak egiten ditu euskarak, bilakabide ingurunegabe gehiago gainditu dituen seinale. Gainditu den bilakabidea, edo bilakabide andana, zein den ikerkizun badago ere.<sup>6</sup>

Horrenbestez, euskara H2 duen hiztunari ahalegin berezi bat egitea eskatuko dio, gaztelaniaz tasun konbinaketa horiek gaitzesten dituen bilakabideren bat egongo baita, eta hori menperatzen izango du lana ikasleak. Batetik, /ʃ/ sabaiurreko ahoskabea bere egin beharko du, euskalki guztiena izanik, ez baitago euskararen sistema fonologiko osorik izaterik hori eta /t̺/ edo /t̺/ afrikaturen bat gabe (ikus 3.2). Bestetik, euskararen sistema aberatsena bereganatu nahi izanez gero, bere oharmenenean daukan /s/ igurzkari hobikari ahoskabea lepokari ala apikari entzuten ikasi beharko du hotsok nahita eta programaturik ekoizteko. Antzeko ahalegina egin beharko du afrikatuen sailean euskararen sistema aberatseneko bi fonema berri barneratu nahi izanez gero: /t̺, t̺/. Azken bi horiek ere, beren artean /ʃ/-k, /s̺/ eta /s̺/ rekiko bezala, hizkuntza i(ra)kastea ez dute lehentasun bera izango, 3.2 atalean erakutsiko den moduan.

Goiko taulen igurzkarien sailetan alde gehiago ere badira. Oñederrak (2012: 147) dio elebitasun goiztiarrean hizkuntza batek besteari fonema berriak gehitzea gerta daitekeela. Izan ere, hiztun elebidunak bere dituen bi hizkuntzetako baten inbentario fonemikoak hala eskatuta, tasun konbinaketa jakin bat gaitzesten duen bilakabide ingurunegabe oro gainditu behar izaten du. Euskara-gaztelania elebidunen sistema fonologikoan gertatu dena azaltzen du horrek. Hala nola, elebitasunaren ondorio da /θ/ hortzarteko ahoskabea. Hegoaldeko hainbat euskal hiztun elebidunek baduten arren, euskararen berezko eta orokor

---

<sup>6</sup> Badirudi apikari edo lepokari egiteko gainditzen diren bilakabide ingurunegabeak ez direla berberak igurzkari eta afrikatuetan. Neutralizatu dituzten euskal hizkerek horren zantzuren bat erakusten dute, bederen, igurzkariak apikariaren alde eta afrikatuak lepokariarenera berdintzea baita joera nagusia. (Oñederra, M. L., komunikazio pertsonala)

ez izatean, euskarazko taulatik kanpo laga da. Hala ere, /θ/ hortzarteko ahoskabea gaztelania hiztunak bere oharmenean izango du, baina euskaraz ez erabiltzen ikasi beharko du, ezta maileguetan ere. Hortzartekoaren ordeztu, euskararen ahoskera ahalik eta jatorren gorde asmoz, [s̺] hobikari lepokaria erabiltzen ikasi beharko du hiztun berriak, eta inguruneak eskatuz gero, honen kide afrikatua: [t̺s̺].

Bestalde, /x/ igurzkarri belar ahoskabea gaztelaniak fonematzat du, baina euskaraz ez da orokorra eta euskal hizkerek desberdin erabiltzen dutenez euskarazko taulatik kanpo laga da. Izan ere, Hegoaldeko hainbat hiztunengan erabat hedaturik dago fonema. Aldiz, beste hizkera batzuetan “jainkoa” bezalako hitz jakinetan baino ez dute (Oñederra, M.L., komunikazio pertsonala). Bestetik, hizkera zaindurako honen erabilera mugatzen den arren, ez da guztiz gaitzesten. Esan nahi baita, Euskara Batuaren Ahoskera Zainduako (EBAZ) arauak <j> grafemaren euskarazko ahoskera oinarritzat: [j], hobesten dute, oro har, eta <e> eta <i> bokalen aurreko maileguetan <g>ren [x] ahoskera gaitzesten dute, salbuespenak salbuespen. Haatik, badira [x] belarraz ere ahoska daitezkeen hitzak *jipoi*, *garaje* zein *joanen* lehenaldiko *zihoan*, *zihoazen* bezalakoak. Gaztelania H1 duen hiztunak oharmenean berea duen fonema hori aipatu aldaketa dialektologiko eta estilistiko horien arabera egokitzen ikasi beharko du.

Sabaiko ahoskuneari dagokionez, euskarak gaztelaniak ez duen beste fonema bat ere badu: /c/ herskari sabaikari ahoskabea. Oharmenerako zein ekoizpenerako erraza ez den tasun konbinaketa duen hotsa da, Oñederrak dioen bezala (2004: 26-27) mihi gainak ahosabaian egiten duen hersketa, herskari batek beharko lukeen bat-batekotasunaz irekitzea beste ahoskune batzuetan baino zailago gertatzen baita. Trabari sabaikariak, trabari horzkari eta hobikariak ahoskatzeko baliatzen den mihiaren aurreko zati mugikorraz baino, aho sabaiaren azpian dagoen mihiaren enbor baldarragoaz ebakitzen dira. Horregatik, sabaiko ahoskunean soilik gertatzen da herskaria afrikatua bera baino trabari markatuago izatea. Hortik letorke, ziurrenik, gaztelaniaren kontsonante sabaikarien artean herskaririk ez, baizik afrikatua besterik ez izatea. Deba barreneko zenbait hizkeratan euskarak berak [c] > [t̺]rekin ordezkatu izanaren arrazoia ere hor legoke (Oñederra, M.L., komunikazio pertsonala).

Albokari sabaikari ahostunari, hau da, /k̺/ri, heltzeko, Oñederra irakasleak (2012) idatzitako artikulua hartu da oinarri. Gauza ezaguna da albokari sabaikari ahostuna /k̺/, gaztelaniaren hizkera batzuetan salbu, euskal lurraldeetakoan esaterako, hiztunen inbentario fonemikoan galdu egin dela /j/ sabaikari [-albokari] edo erdikoak

ordezkatuta.<sup>7</sup> Euskal lurraldeetan ere galera azkentzeaz dago, gaztelaniadun elebazarren artean hiztun zaharrek baino ez baitute albokari sabaikaria. Hiztun gutxi eta horiek gainera zaharrak izanik, euskara H2tzat ikasiko duen gaztelania hiztunak, oro har, ez du izango /ʎ/ bere fonemen artean. Hori da, lan honen irizpide didaktikoa tarteko, ikaslearen biltegi fonemikotik albokari sabaikaria kentzeko arrazoia.

Bestalde, Oñederraren arabera gaztelania-euskara elebidunen artean albokari sabaikaria oraindik hiztun gehiagok dute beren inbentario fonemikoan, fonemaren galera abian den arren. Beharbada, jada euskal hiztun gazteengan ahoskera berdintzailea da nagusi. Euskaradun izan edo ez, beraz, neurri handi batean hiztunen adinaren arabera da albokari sabaikariaren galera, hiztun zaharragoek fonemari eusten baitiote, gazteagoengan urrituz doan bitartean.<sup>8</sup>

Bi hots horien neutralizazioa azaltzeko Oñederrak (2004: 64) dio, artikulatorki eta akustikoki, sabaikari albokaria eta ez-albokaria oso antzekoak direla, albokaria izanik bietan tasun konbinaketa erlatiboki konplexuagoa duena. Izan ere, ez-albokaria egitea errazago da sabaian mihi bizkarrarekin hersketa egiten den bitartean albo(a)k aire etorriari irekita ahoskatzea baino. Horregatik, fonetikoki onena den hotsak iraun egiten du eta markatuena galdu egiten da.

Fonologia Naturalaren ikuspegitik, /ʎ/ fonemaren galera desalbokaritze bilakabide ingurunegabe baten presio fonetikoari amore ematean datza; hizkuntza batek /ʎ/ albokari sabaikaria izateko sabaikariak [-albokari] egiten dituen *fortitio* bilakabide ingurunegabea gainditu beharko du eta. Desalbokaritze bilakabide horren ondorioz, palataltasuna albokaritasunarekin lotzen duen tasun konbinaketa galtzen du hizkuntzak eta, horrela, hizkuntzaren ahoskeran sabaikaria [-albokari] eta [+albokari] kontraste aukera murrizten da.

Gauzak horrela, euskararen sistema fonologikoak bi hotson arteko oposaketa biziago duela eta euskararen ahoskera zaindurako EBAZ arauak [ʎ] ahoskatzea hobesten dutela aintzat harturik, H1 gaztelania duen hiztunak, gorago esan bezala, oro har, /ʎ/ faltako duenez sabaikariak [-albokari] egiten dituen bilakabide ingurunegabea atzentzen izango ditu zailtasunak.

---

<sup>7</sup> Sabaikari ez-albokariaren izaera zalantzezkoaz, ikus Hualde (2005: 49, 53).

<sup>8</sup> Ikus Oñederra (2012: 154), hizkuntzaz kanpoko eraginez. Bertan gaineratzen du garrantzitsua litzatekeela euskara H2tzat ikasteen /ʎ/ ez ikasteak euskarazko desalbokaritzean izan duen eragina aztertzea.

## 2.2 Bilkuretako bilakabideen (ingurunedunen) aldeak

Atal honetan, ingurune jakinetan, maila sintagmatikoan, gaztelaniak eta euskarak nola jokatzen duten aztertuko da.

Oñederrak (2004: 55) Fonologia Naturaletik jasotzen du, bilakabide naturalak fonetikoki motibatuak izanik unibertsalak diren arren, hizkuntza bakar batean guzti-guztiak ez direla inoiz gertatzen. Horrekin esan nahi da hizkuntzek hots unitateak bereizteko duten behar linguistikoen arabera bilakabide horiek gainditu (kendu edo murriztu) egin behar izaten dituztela. Horrela, hizkuntzak bere fonologian gordetzen dituen bilakabideek hiztunen ahoskera gaitasuna mugatuko dute (Oñederra, 2004: 51). Hizkuntza batek bilakabide bat baduen jakiteko, bilakabidearen izatea frogatzen duena bilkura baten kontraste jakin bat ezin bereizi ahal izatea da. Alegia, hizkuntza batek bilakabide bat gainditzen ez badu esan nahi du ingurune berean kontrasteak ez daitezkeela egon, inguruneak aginduko baitu zer ahoskatu.

Bigarren hizkuntza bat ikasteari dagokionez, helburuko hizkuntzak jatorriko hizkuntzak gainditu ez duen bilakabideren bat gainditzea eskatzen duenean, hor aurki daitezke ikasleak izango dituen zailtasunak. Hain zuzen, hor bilatu behar lirateke gaztelania H1 duen hiztunari euskara ikastea sortuko zaizkion zailtasunak, arazoa lehen hizkuntzak gainditu ez duenarekin baitator, horrek eskatzen diolako ahalegin fonetikoaren hiztunari hizkuntza berria. Alor honetan, berdintasun ugari dituzte euskarak eta gaztelaniak. Esaterako, euskarak eta gaztelaniak biek dituzte, hots, ez dituzte gainditzen, *lenitio* edo ahultze bilakabide hauek guztiak:

-Ingurune jarraituetako herskari ahostunen jarraitze alofonikoa (b, d, g → β, ð, γ / \_\_#):  
*ba[β]a : ha[β]a.*

-Ingurune sudurkarietako bokalen sudurkaritze alofonikoa (V → [+sud] / \_\_N):  
*arr[ã]no : marr[ã]no.*

-Ingurune ozenetako zistukari<sup>9</sup> igurzkarien ahostuntze alofonikoa (s → z / \_\_R): *e[z]ne : ci[z]ne.*

Bestalde, egungo euskarak zenbait bilakabideren erakusgarri diren afrikatu/igurzkari txandakatze fonologiko ugari ditu. Bilakabide horietako bi afrikatzeak dira. Batetik, euskaraz orokorra eta nahitaezkoa ez den arren, maiztasun handikoa den zistukari igurzkari biren elkartzean gertatzen den afrikatze bilakabidea (s+s → ts): *ez [s̺]en etorri → e[ts̺]en etorri* (Oñederra, 2004: 26). Hotsa indartu egiten bada ere, txistukari biak

---

<sup>9</sup> Zistukari: txistukari sabaiaurrekoak ez beste guztiak (Oñederra, 2004: 151).



afrikatu baten bidez ahoskatzeak bilkuraren ebakera errazten du. Hori baita bilakabideen (ingurunedun edo gabe) funtsa arazo fonetikoei “konponbidea” ematea (Oñederra, 2012: 143). Ziurrenik, gaztelaniak bilakabide horri ( $s + s \rightarrow s$ ) *lenitioaren* bidez ihes egiten dio (*es silencioso*  $\rightarrow$  *e[s]ilencioso*), mendebaldeko euskaretan (baita besteetan ere nahitaezkotasunik gabe) egiten den moduan *ez zen etorri*  $\rightarrow$  *e[s]en* egitean. Edonola izanda ere, euskarak gainditu ez izanak gaztelania H1 duenari ez dio sortuko zailtasunik.

Bestetik, ozen-txistukari bilkuretako kontsonante ozenen ondoko afrikatzea ( $s \rightarrow ts$  /R\_\_ ) du egungo euskarak: *utzi[s]uen* : *esan[ts]uen*. Kontsonante ozenak herskari dira neurri batean eta hersketa osagai hori txistukarirako trantsizioan luzatu egiten da afrikatzea gertaraziz (Oñederra, 2004: 25). Horrela, aurreko bilakabideak bezala, bilkuraren ebakera errazten du hotsa bera indartu arren. Bigarren hori ere gaztelaniak gainditu egin du ozen-igurzari bilkura hauteman eta bereizteko, ondorengo kontrasteek erakusten diguten bezala: *ancho*, *orchata*, *salchicha* eta *cansado*, *orza*, *salsa*, *han sacudido*. Lehen hizkuntzan gainditurik duen bilakabideak ez dio kalterik egingo, beraz, gainditu ez duen euskararako (ez erabat bederen, batzuetan gainditzen delako, baina morfema barrenetan gaur egun sistematikoa da).

Egoera itzulirik, ordea, gaztelaniaz eragin egingo luke euskarak gainditu ez izana. Duela zenbait urte Perurenak ezagun egin zuen iragarki hartan *fun[ts]iona* ahoskatzeak garbi erakusten du hori. Areago, euskarak oraintsu arte maileguak egokitu dituen moduak (*unibertsitate*, *Frantzia*, etab). H1 gaztelania duen hiztunarentzat euskarak dituen afrikatzeak ingurunearen arabera egiteko zailtasuna, beraz, ez letorke bilakabide ingurunedunen bat gainditu behar izatetik, /ts/ afrikatu hobikaria ez menperatzetik letorke, alegia, bilakabide ingurunegabe bat gainditzea eskatzen diolako euskarak (baina ez gaztelaniak) fonema hori erabiltzeko (edo horiek biak, apikaria eta lepokaria, menperatu nahi badira).

Horrez gain, Oñederrak (2004: 55) bere fonetika eta fonologiazko hitzen liburuan jasotzen du hizkuntza batek izan ditzakeela gainditu gabe ere agerian azaltzen ez diren bilakabide batzuk, delako hizkuntzak ez duelako sortzen egokierarik bilakabide horiek gerta daitezten. Bilakabide horiei *latent process* “bilakabide ezkutu” deritze. Esan bezala, horrelako bilakabideak ezkutuan mantentzen dira, hizkuntzak ez baitu izaten bistaratzeko modurik.

Bigarren hizkuntza bat ikastean, ordea, hizkuntza berri horrek agerrarazi egin dezake hiztunak H1ean ezkutuan zeukan bilakabidea. Gaztelania H1 duen hiztunari agerraraziko zaio ezkutuan duen (afrikatu  $\rightarrow$  igurzari /\_\_C) bilakabidea euskarazko *hotz*  $\rightarrow$  *hoztu*

bezalako igurzkaritzeekin topo egitean. Izan ere, bai euskara bai gaztelania, bi hizkuntzak bat datoz bilakabide horri dagokionez; alegia, ez bata ez besteak ez du bilakabidea gainditu. Euskarak, baina, agerian du sinkronikoki sortzen diren igurzkarri/afrikatu txandakatzeetan: [ot̪s̪] : [o̪s̪]. Gaztelaniak, aldiz, ez du afrikatu-hersketa bilkura edo sekuentziarik (aukerarik ere ez, beraz, bilakabidea gainditzeko). Ondorioz, latente edo ezkutuan dauka bilakabidea. Euskarak agerrarazi egingo dio ezkutuan duen bilakabide hori, baina baduen bilakabidea izanik ez dio zailtasunik sortuko. Gainera, afrikatua igurzkaritzeko bilakabideak berak ere hotsa ahulduz datorren hersketarekin osatzen duen bilkura errazten du.

Ahoskabetze bilakabideak ere baditu euskarak hitz azkenean eta, oro har, trabari bilkuretan ahoskabetzea da nagusi. Egun ere emankorra den hitz azkeneko ahoskabetzeari dagokionez (d, g → t, k / \_\_ #), euskararen historiak /t/ : /d/ (*zait* : *zaida*-) bezalako txandakatzeak utzi dizkigu (Oñederra, 2004: 28). Gaztelaniak hautazko du hitz azkeneko ahoskabetze bilakabidea, estilistikoki aldakorra baita. Oñederrak (2004: 52) dio, bilakabide fonologikoak zailtasun fisikoei aurre egiten dieten ordezkatzekak direla gogoan hartuta eta hizkera mailen desberdintasunen artean arretaren neurria egonik, zailtasun maila ezberdinak onar daitezkeela hizketaren egoera diferenteetarako. Horregatik, gaztelaniaren hizkera zainduenean soilik, ez zaio ahoskabetze bilakabideari amore ematen hitz azkenean, hau da, bilakabidea gainditu eta ahostuna egiten da *uste[d]* eta *equida[d]* bezalakoetan. Beste behin, H1ean gainditu den bilakabideak ez dio zailtasunik eragingo H2 ikasteen.

Trabari bi elkarren segidan gertatzen direnean, txistukari-herskari bilkurak dira ohikoenak euskaraz, elkarren ondoko trabariak ahots tasunetan berdintzea jaidura unibertsala izanik, euskarak ahoskabetasunaren alde egiten duela erakusten dute, bai morfema barreneko bilkurek (*hauspo*, *estu*, *neska*), bai elkarketetako txandakatzeek (*ez [t]u esan*). Txistukarien ondoko trabarien ahoskabetzeak (D → T / S \_\_) bilkuran ahultze edo *lenitio* eragina du lehen kontsonantearen ahoskabetasunak bigarrenean irauten baitu. Aldiz, dimentsio ingurunegabeen *fortitioaren* ondorioa du, aldatzen den fonemaren ahoskera, traba, indartu egiten delako. Hala ere, elebidun goiztiarrok gaztelaniaz jabetzean, ziurrenik, kendu egin diogu bilakabideari garai bateko nahitaezkotasuna gaztelaniazko *desde* bezalakoak egiteko. Hizkera estandarraren ortografiaren eraginari esker ere, euskararen ahoskabetze joera ahultzen ari da, ahostunarekin entzuten diren *e[zð]u esan* edo *desbideratu* eta *ezberdin* bezalakoek erakusten duten bezala. Gaztelaniak, bilakabide hori gainditua duelako, ingurune horretan posible dira *peste* eta

*desde* moduko kontrasteak. Horrenbestez, H2 euskara ikasleari ez dio zailtasunik sortuko txistukari-herskari bilkurak.

Laburbilduz, atal honetan ikusi dugu alor ingurunedunean euskarak eta gaztelaniak badituztela beren aldeak, ez baina gaztelania hiztunari euskara ikastea zailduko dionik. Horrek erakusten du alor ingurunedunean euskara erlatiboki erraza dela gaztelaniatik datorrenarentzat.

### **2.3. Prosodia ereduaren aldeak**

Prosodia hizkuntzalariarentzat hizketaren osagai harrapagaitzena da, deskribatzen eta sailkatzen zailena eta irakasteko ere iheskorrena, kontrolagaitzena eta zailena (Oñederra et al., 2015: 14). Beraz, prosodiaz aritzea ere ez da erraza. Horregatik, atal honetan gaztelaniaren eta euskararen prosodiaz nabarmenena den aldeaz jardungo dugu batez ere, bi hizkuntzek duten azentuerez, alegia. Izan ere, lanaren hasiera-hasieratik dakigu euskara ikasten duten gaztelania hiztunei zailtasuna sortuko diena gaztelaniaren azentuera euskarara ez ekartzea izango dela, areago, euskal hiztunon artean prosodia *gaztea* delakoa hedatu samar dagoenean.

Lehendabizi, baina, errepara diezaiegun egungo euskararen eta gaztelaniaren elementu prosodiko zenbaiti, askotan bat datoz eta. Besteak beste, silaba egitura sendoa dute biek, eta silaba irekiak ugariak dira batzuetan beste bi hizkuntzetan. Gainera, bokal guztiak dira nolakotasun garbikoak, kontsonante multzoak urri dira eta daudenak arinak dira; hots, kontsonante multzoak gehienez ere bikoak izaten dira silaba beraren barruan. Horrela, euskarak eta gaztelaniak antolamendu silabikoari garrantzi handia ematen diete. Ondorioz, erritmoa silaben araberakoa da bi hizkuntzetan, isokronia silabetan oinarritzen da, hau da, denbora puska ustez berdinak silabak dira (Oñederra, 2015: 495). Beraz, biak ala biak daude silaba aldiko tipotik gertuago azentu aldiko tipotik baino.

Hala ere, euskaraz hiztunen oharren linguistikoan azentuari ez zaio gaztelaniak ematen dion besteko garrantzi linguistikorik ematen. Euskalki batzuetan, gehien jota forma pareak desberdintzen dira azentuaren bidez. Bat-bateko hizketan, ordea, desberdintasun horiek urtu egiten dira esaldiaren doinuan (Oñederra, 2004: 45). Gainera, gaztelaniak azentua erregulariki hizka kokatzen du hitzaren azken hiru silabetako batean. Dena den, hitzen %80 inguruk azken aurrekoan dute azentua eta maileguetan beti azken aurrekoan kokatzeak horretarako joeraren nagusitasuna adierazten du (Gil Fernández, 2007: 282).

Aldiz, euskarak esaldikako azentua du, hain zuzen, euskara bezalako hizkuntza buru azken eta komunztadura sistema komplexuak dituztenetan erritmoaren bereizgarri izan ohi da, esaldi osoak edo, esaldi luzeetan, sintagmak azentu bakarraren azpian biltzea (Donegan & Stampe, 1996 apud Oñederra 2015: 497).

Horrenbestez, prosodiaren aldetik euskararen ahoskera onaren irakaskuntzan kontuan izateko alderik nabarmenena azentuerarena da. Izan ere, zaila egingo zaio ikasleari euskarara ez ekartzea gaztelaniagatik berea duen eredu prosodikoa, alegia, azentua hizka eta, batez ere, azken aurreko silaban jartzea. Hori bera dio Gil Fernándezek (2007: 317) ikaslearentzat zaila dela H2ren prosodia bereganatzea, H1eko prosodia ereduak hiztunaren garuneko mekanismo neurofisiologikoetan errotuta egoten direlako. Gaineratzen du, ikasleek prosodia beren helburu komunikatiboetarako gutxietsi egin ohi dutela.

Euskararen berezko prosodia bereganatzeko bidea nahasgarriago gertatuko zaio irakasten zaion eredu bera ere ez bada euskararena. Izan ere, “hizkuntza modu formalean ikasteak hizkako azentua sendotu du” (Oñederra, 2019: 4) eta hedatu samar dago euskal hiztunon artean ere euskarak ezein euskalkitan ez duen prosodikoki horren azentu erregular eta nabarmena egitea (Oñederra, 1998: 441). Hain zuzen, erregulariki eta homogeneousunez azentua hizka banatzea eta kokapen finko batekin, hots, azken aurreko silaba indartzeko joeraz. Halakoa izan da hotsetarako letra oinarri hartzearen ondorio batuarekin lotu den prosodia berria eta horrela irakatsi izan da eta irakasten da euskara (Oñederra et al., 2015: 16).

Horregatik, euskararen irakaskuntzan arreta berezia jarri beharko genioke euskararen prosodia natural bat irakasteari. Gil Fernándezen (2007: 262) hitzetan elementu segmentalak ez litzaizkioke irakatsi behar ikasleari horiek txertatu beharko lirartekeen H2aren prosodia bereganatu arte. Hori bera zihoen Oñederrak 1998ko lanean:

[L]ehendabizi esaldiaren prosodia, kantua, funtsean erritmoa den horretaz jabetu; gero hor sartu, hor txertatu kontsonante eta bokal kateak. [...] prosodiaren irakaskuntzatik hasi behar da. Beraz, ikasi behar dugu eta irakatsi behar dugu hitz andanak erritmo, azentu eta entonazio ereduetan txertatzen: benetako esaldi diren hitzak esaten. (Oñederra, 1998: 448)

### 3. Proposamen teorikoa

2. ataletik ondoriozta daiteke didaktikoki ahoskeraren alderdi prosodikoa eta ingurunegabea direla ingurunedun segmentalak baino garrantzitsuago. Beraz, irakaskuntza, ziurrenik, hurrenkera honetan: *prosodia > fonema inbentarioa > bilkurak*, bideratu behar genuke ahalik eta eraginkorrena izateko. Atal honetan, lehen bietan jarriko dugu arreta.

Batetik, 3.1 atalean proposatuko da ahoskeraren irakaskuntzak prosodia hasiera hasieratik aintzat hartu behar duela. Bigarrenik, 3.2 atalean hiztunarentzat berri diren fonemen artean lehentasun batzuk proposatuko dira, adibide gisa txistukarien saila hartuz. Bilkuretako bilakabideei dagokienez, ez da berariazko proposamenik aurkeztuko, 2.2 atalean esan baitugu gaztelania H1 hiztunari ez diotela lan handirik emango. Haatik, ezin daiteke ahaztu ahoskeraren hiru atalok praktikan batera joango liratekeela ikasgelan.

#### 3.1 Euskararen ahoskera prosodia aintzat hartuta lantzea

Jadanik esan da prosodia dela ahoskeraren atal garrantzitsuena, kontsonante eta bokalen gertalekua baita eta horien eragile eta baldintzatzaile ere bai. Gainera, prosodia egoki bat funtsezkoa da hizkuntza bat hitz egitean, hein handi batean, mezuaren adigarritasuna eta ulergarritasuna erabakitzen dituelako (Gil Fernández, 2007: 329).

Hala ere, bigarren hizkuntza bat haurtzaroa igaro ondoren ikasteen joera orokorra omen da hizkuntza horretan azentuak hizka banatzea (Šimáčková & Podlipský, 2015: 139 apud Oñederra, 2019: 4), nahiz eta hizkuntza horrek hori eskatu ez. Euskara ikasi duen gaztelania hiztunak hori bera egiteko arrazoi bi dauzka. Batetik, hizkuntza heldutan ikasi izana eta, bestetik, bere H1aren azentuera halakoxea izatea: hizkakoa.

Gaztelaniaren eredu prosodiko hori euskarara ekar ez dezan, azentua esalditan eta ez hitzetan ikasi beharra proposatu dute Oñederrak (1998) eta Oñederrak eta bestek (2015). Izan ere, azentua segmentuez gaindi doan hizketaren osagaia dela kontuan izan behar genuke. Ikasleari azentua zein bokal edo silabatan dagoen irakastea azentua hizketaren osagai segmentalekin nahastea litzateke (Oñederra et al., 2015: 17). Gainera, euskaraz hitza bera ere ez bada azentuaren banaketarako darabilen unitatea, azentua hitz zerrendatan irakasteak arazoak sortuko dizkio ikasleari. “Azentudun” hitz horiek esaldien prosodiarekin ez baitira bateragarri izango, edo, hobeto esan, irakatsitako hizkako azentu horrek behartutako prosodia ez da euskararena izango.

Euskarak berezko dituen prosodiak mantendu behar ditu eta irakatsi behar den euskararen prosodia euskararena izan behar da, Oñederrak eta bestek (2015: 17) dioten

bezala prosodia hori askotarikoa da. Euskal hiztun orok bere euskalkiko prosodia ahoskera zaindura eramaten ikasi behar lukeen bezala, hiztun berriari erakutsi behar zaion ereduak ere halakoa izan behar du: euskalkiena.

Hiztun berriak gaztelaniako azentuera euskarara ez ekartzeko eta euskararen prosodia erreal bat ikasteko bide onena hizkuntzaren ikasketa abiatzen duen unetik beretik hizkuntza, idatziz baino, ahoz lantzea litzateke (lehen urratsetan, bederen). Era horretan, ikasleak eredu foniko erreal bat ikasiko du, fonetikoki egiten dena. 1.3 atalean ikusi dugun IKA euskategietan darabilten metodoa da horren adibide ezin hobea. Euskara H2tzat irakastea ahozkotasanaren bidetik lantzeak euskararena den prosodia bat bereganatzeko bidea erraz dezake, ikasleak jasotzen duen eredu prosodikoa (irakaslearena) egokia bada behintzat (cf. prosodia *gaztea*, Oñederra, 1998: 444).

Hizketa ezinbestean prosodian gertatzen denez, ahozkotasan ardatz duen irakaskuntzan hizkuntza prosodikoki lantzen da. Izan ere, hizkuntza esaldien edo, areago, testu osoen mailan: hizketa era naturalean lantzea ahalbidetzen da. Gainera, horrelako metodoen bidez bermatzen da hiztun berria ia ohartu gabe ahoskeraz ohartzea, erregela eta arauak buruz ikasi gabe, ahoskera ezin baita gramatika eta hiztegia bezala buruz ikasi (Oñederra, 2019: 6) eta, bide batez, “ikasten da hitz ordena eta sendotzen komuntadura, mugagabeak eta bestelako erregulartasun gramatikalak” (Oñederra, 2019: 7). Horrenbestez, prosodia aintzat hartutako irakaskuntza, ahoskera soilik ez, hizkuntza bera ikasteko giltzarri izan daiteke; hizkuntzaren atal ezberdinak intuitiboki bereganatzen baitira. Hori guztiori, guztiz bat dator Julia Marinek (2015) ondutako *Esatearen ederra* metodoarekin.

### **3.2 Ahoskeraren irakaskuntzarako fonemen arteko lehentasunak**

2.1 ataleko bilakabide ingurunegabeen analisisian ikusi dugu gaztelaniadun hiztunak ez dituela bere fonemen artean euskararenak baino ez diren: /ʃ/ igurzkari sabaiaurrekoa, /tʃ/ afrikatu apikaria zein /tʃ/ afrikatu lepokaria, /k/ albokari sabaikaria eta /c/ herskari sabaikaria. Oñederra eta besteren (2014: 79) arabera, gaztelania H1 duten euskal elebidun berantiarrek, oro har, ez dituzte euskarak bakarrik dituen fonemak izaten. Alegia, elebitasun berantiarrean joera dagoela euskara “beranduegi” (behin oharmena zurrunduta) ikasteagatik euskal sistema fonologikoa osorik ez bereganatzeko eta gaztelaniak dituen bilakabide ingurunegabeen arabera ahoskatzeko euskara.

Hiztun horien ahoskeran ohikoak izaten dira ondorengo ahoskerak: *Xabi* esateko [tʃ]abi edo [s]abi baina ez [ʃ]abi, *antzoki* eta *ertzaina* esateko an[tʃ]oki eta ert[tʃ]aina

([tʃ] afrikatu lepokariarekin beharrean), *ilun* esateko *i[j]un* (*i[ʎ]unen* ordeztuz), *kitto* eta *Antton* esateko *ki[tʃ]o* eta *An[tʃ]on* baina ez [c]rekin. Horrela azaltzen du hori Oñederra irakasleak:

[...] en el bilingüismo tardío, cuando la lengua que carece de dicho fonema es la primera lengua y la lengua poseedora del fonema se aprende como segunda lengua, una vez reducida la capacidad del hablante de inhibir los procesos fortitivos e incorporar nuevos fonemas a su inventario. Ocurre entonces, que la primera lengua conserva un proceso, fonéticamente motivado pero fonémicamente restrictivo, de manera que sonidos de la segunda lengua relativamente menos óptimos (como /k/ con respecto a /j/) quedarán excluidos del bagaje fonémico del hablante. Para que el aprendizaje de la segunda lengua fuera completo, el hablante tendría que eliminar aquellos procesos de su primera lengua que le impidan la posesión de fonemas presentes en la segunda lengua. (Oñederra, 2012: 147)

Euskara H2tzat dutenen eredu hori ahoskeraren irakaskuntzaren bidez saihestu daitekeela pentsatuta eta euskal hotsen irakaskuntza bideratu asmoz, hotsen arteko lehentasun batzuk proposatzea komenigarria litzateke. Izan ere, mundu ideal batean dena batera i(ra)kas badaiteke ere, hori ez da horrela izaten mundu errealean eta ahoskerarekin ere berdin: dena ezin da batera ikasi. Hots batzuk beste batzuk baino lehenago ikastea komeniko zaio hiztunari. Horregatik, jarraian lehentasun horiek zehazteko aintzat hartu beharreko irizpide zenbait emango ditut:

a) Hitztunaren oharmena kokatu beharko litzateke lehenengo, fonemaz ari garela, belarriz entzun eta hautemateko gaitasuna da funtsezkoena hizkuntza berri bat ikasten hasteko. Hitztun berriak H2aren hotsak barneratu beharko ditu lehenengo, horiek gero nahita eta programaturik ekoizteko. Oharmena, beraz, ekoizteko gaitasunaren aurretik doa beti. “Gogoan izan behar da, gainera, *phonological asymmetry* deritzona: hiztunek, entzule diren aldetik, errazago eta gehiago hautematen dute ekoizteko gai direna baino” (Oñederra, 2004: 49). Halaber, euskararen sistema fonologikoa osorik bereganatzea ez da bat-bateko kontua, apurka-apurka gertatuko da. Gero txistukarientzat proposatuko den adibidean ikusiko dugunez, batzuetan hiztunak ekoizteko gaitasunik izan gabe ere, hots batzuen oharmena izatea nahikoa da euskararen ahoskeraren i(ra)kaskuntza prozesuan.

b) Euskararen orokor diren fonemek dute lehentasunik handiena. Aldakortasun dialektala gorabehera, euskal hizkera guztietan dauzkagun bereizketa fonemikoak dira nahitaezko euskararen sistema fonologikoa bereganatzeko. Horregatik, hiztun berriaren gutxieneko gaitasuna hizkera guztiek batera dituzten fonemak izatean datza. Hemen kokatu behar genuke 2.1 atalean esan bezala /j/ igurzari sabaiurrekoa, bi txistukari

(/s/,/tʃ/) baino ez dauzkan hiztun berriarentzat, egungo euskalki guztiena izanik gutxieneko lau txistukariko sistema (/s/, /ʃ/, /ts/, /tʃ/) izateko ezinbestekoa dena hortzobietako afrikaturen batekin batera. Izan ere, apikariak eta lepokariak bereizten ez dituzten euskal hizkeretan ere gutxienez bina sabaiaurreko eta hortzobietako txistukari dituzte, bata igurzkaria eta bestea afrikatua.

c) Euskararen orokorrak ez diren bereizketa fonemikoei dagokienez, hizkuntzaren antolaketa fonologikoan duten garrantzia da kontuan izateko irizpidea, irristakorrago irizpide den bezainbatean. Hala nola, apikari/lepokari bereizketa (euskararen inbentario fonemiko maximoa aintzat hartuta) garrantzi handikoa da. Alde horretatik lehentasun izan beharko luke ahoskeraren irakaskuntzan.

d) Aldiz, bereizketa fonemiko baten bideragarritasun fonetiko-fonologikoa irizpide hartuta, irakaskuntzan izan beharko lukeen lehentasuna gutxitu egin daiteke. Adibide berarekin jarraitzearen, apikaritasuna zein lepokaritasuna, izan igurzkari nahiz afrikatu, oharmenerako eta ekoizpenerako erlatiboki zailak direla ikusi dugu 2.1 atalean. Era berean, bilakabideen analisisian garbi geratu da /ʎ/ albokari palatala entzuteko, zein ahoskatzeko dituen zailtasun fonetikoak zein diren. Horregatik, hori ere irakaskuntza lehentasunen hurrenkeran beheratu egin behar genuke. Aitzitik, kontuan izateko gauza da euskalki palatalizatzaileetan elementu fonologikoki sarria eta esanguratsua dela albokari sabaikaria.

f) Fonema batek hizkuntzan duen gertagarritasuna ere, beraz, irizpideetako bat izango da ahoskeraren irakaskuntzarako lehentasunak proposatzean; alegia, lehentasunen hurrenkeran goratzeko edo beheratzeko arrazoi izango da. Horregatik, /c/ herskari sabaikaria ikasketaren lehenengo urratsetan, ziurrenik, ez da hain garrantzitsua izango, beste fonemen aldean hitz gutxitan agertzeaz gainera, oharmenerako eta ekoizpenerako dituen zailtasunak (ikus 2.1) tarteko. Gogora bedi Sagrario Alemanek ere gauza bera zioela, hots, sabaiko herskaria ikasle hasi berriei harrapatzen gehien kostatzen zaien hotsa zela.

g) Irizpide soziologikoa, aurretik aipatu diren txistukari apikari eta lepokariak bereizten ez dituzten hizkeren hiztun kopuruaren ugaritasuna esaterako, kontuan hartzekoa da. Batetik, euskal hiztunen artean hots batek edo bereizkuntza batek duen nagusitasuna edo murriztasuna garrantzitsua delako irakaskuntzarako proposamen baterako. Bestetik, hiztun berriek bereizkuntza jakin bat hainbat euskal hiztunengan ez nabaritzeko aukera ere areagotzen du.



h) Hitzuna hizkuntza ikasten ari den geografia edo, bestela esan, alderdi dialektologikoa izango da, beraz, hots bereizketa jakin bat bereganatu edo ez eragingo duen baldintzetako bat; baita hizkuntza ikastegian ikasleak jasoko duen eredia ere, dela irakaslearen hizkera edo eskoletan erabiliko diren grabazioetakoena, eta horrek aukera dialektalak dakartza berez. Izan ere, ikasleek ahoskera, batez ere, irakasleengandik ikasi eta haiek egiten duten moduan barneratzen dute, gogora bedi Sagrario Alemanek [x]ren ahoskera ikasleengan nagusitzeaz zioena. Hori dela eta, hizkera jakin batean egiten den hots bereizkuntza jakin bat, [x] adibidez, nahiz eta ahoskera zaindurako EBAZ arauak hobetsirikoa ez izan, hiztunaren oinarrizko ahoskera gaitasun baterako aski izan daiteke; ez baita zentzuzko hiztun berriari beren eredu diren inguruko hiztunek egiten ez dutena eskatzea. Horrela, ahoskera irakasten den tokira moldatu beharko litzateke neurri batean irakaskuntza, eta herri hizkerak ez dituzten hotsak maila aurreratuago batean kokatu beharko lirateke, hau da, euskararen ahoskera zainduagoan. Era berean, herri hizkera batek ahoskera zaindurako gomendatzen den hots bereizkuntza hori berez baldin badu, jadanik, oinarrizko lehentasuna eman geniezaioke.

i) Herri hizkeren eta ahoskera zainduaren banaketarekin bat egiten duen lehentasuna bat dator euskararen aldakortasun estilistikoarekin. Gauzak horrela, ikasketaren azken helburura begira soilik, hiztun berria maila aurreratuan dabilenean jarri beharko litzaioke arreta zenbait hots bereizteari. Ikaslea ikasten ari den tokiko hizkeran egiten ez dituzten zenbait hotsen bereizketaz ari gara. Hala nola, txistukarrietan apikaritasuna eta lepokaritasuna bereiztea, /c/ faltaz gero herskari sabaikaria bereiztea eta desalbokaritzaila izan eta /k/ albokari palatala bereiztea.

Horrenbestez, aipatu irizpideen arabera, euskara H2tzat i(ra)kasteen hiztunaren lau gaitasun maila nagusi bereiztea proposatuko da: lehenengo hiztun hasi berriarena, bigarren, hiztun berriak euskara ahoskatzen hasteko behar lukeen gutxieneko gaitasuna, hirugarren, hiztunaren euskaraz aritzeko oinarrizko ahoskera gaitasuna eta, laugarren, ahoskeraren ikasketaren azken helburua. Lehen biak salbu, ikusiko dugunez, azken biak euskal hiztun batek izan beharreko erregistro estilistikoekin bat datoz. Adibidea txistukarien sailekoekin egitea pentsatu da sail ugaria izanik proposamen honetarako aproposa delako.

#### 1. Hasi-berriarena.

Ikasketaren lehen urratsetan, gure hiztuna gaztelaniaduna dela gogoan hartuta, hiztunak berak dauzkan gaztelaniaren bilakabide ingurunegabeen menpe gaztelaniazko hotsekin jardungo luke euskaraz. Hasiera batean, saihestezina litzateke hori. Nabarmenak

izango dira euskal hitz eta esaldien ahoskeran egingo dituen ahoskerazko hutsak, baina nabarmenak bezain onargarri lirateke maila honetan. Baliteke, halere, hutsak nabarmenago izatea idatzian oinarritutako ikasketa bat jasoz gero. Izan ere, euskarazko txistukarien kasuan <z> grafia *a,o,u* bokalen aurrean bere /θ/ hortzartekoarekin lotu eta <x> grafiadunak [ks]rekin ahoska litzake.

Gainerakoan, hiztun hasiberri bezala, euskarazko igurzkari diren txistukariak bere txistukari igurzkari bakarrarekin, /s/rekin, egitea arrunta litzateke. Euskarazko afrikatuak ahoskatzean ere, afrikatu apikaria, lepokaria eta sabaiaurrekoa, guztiak bere /tʃ/ sabaiaurrekoarekin berdinduko lituzke. Horrenbestez, euskarazko inbentario fonemiko maximoa aintzat hartuz gero, txistukarien saileko hiru igurzkariak eta hiru afrikatuak hots banarekin berdinduko lituzke hasiera batean.

## 2. Gutxieneko gaitasuna.

Apurka-apurka, bere oharren eta ekoizpen gaitasunak, hurrenez hurren, euskarara egokituz hiztun berriak euskal sistema fonologikoa bereganatzen hasi behar luke. Gutxieneko maila honetan oraindik txistukari igurzkarietan lepokaria eta apikaria daukan /s/rekin berdinduta nahikoa luke (apikariaren alde egiten dute usuenik lepokariaren eta apikariaren arteko bereizkuntza fonologikoa galdu dutenek ere). Aurrez ere esan bezala, apikaritasuna eta lepokaritasuna bereiztea artikulatorki konplexu samarra (ahoskune ia berean mihiaren punta edo bizkarra jartzea) baita. Baina /f/ sabaiaurrekoa euskararen ahoskerazko gutxieneko maila bat izateko bereizi egin behar luke. Nahitaezkoa da, *b*) puntuan aurreratu bezala, hori gabe (hobietako afrikaturen batekin batera) ez lukeelako euskarazko txistukarien sistema fonologiko minimorik. Gainera, bere /s/rekiko akustikoki desberdinagoa izanik, aldea nabarmenagoa da, eta artikulatzeko ere, beste igurzkariaren aldean errazagoa.

Beraz, /f/ eta /ts/ biak dira gaztelania hiztunarentzat beharrezko gutxieneko mailan. Lehena euskalki guztietan berbera bada ere, bigarrena, lepokariaren eta apikariaren arteko bereizkuntza galdu duten hizkera gehienetan, afrikatuen neutralizazioa lepokariaren aldekoa da. Lepokaria lehenestea egokiago iruditzen zaigu irakaskuntzara bideraturiko proposamen honetan. Hiztunaren gutxieneko mailaz ari garela kontuan izanik, ez [tʃ] afrikatu lepokaria izatea euskararen orokorrigo delako bakarrik, irakasten den euskara batua izanik, hizkuntzan (batez ere aditzetan) /tʃ/k /tʃ/rekiko duen ugaritasunagatik ere bai. Bestalde, /f/ afrikatu sabaiaurrekoa gaztelania hiztunak baduenez, /tʃ/ apikariarekin berdintzea ez litzateke lepokaria ez bereiztea bezain larria, [tʃ] lepokariaren ahoskera okerra nabarmenagoa baita euskal hiztunon belarrirako ere.

### 3. Oinarrizko gaitasuna.

Herriko hizkera batean biziko denari eskatu behar litzaiokeen gaitasuna litzateke, alegia maila zaindurako euskararik behar ez duen hiztun berriarena. Maila honetan, hiztun berriak igurzkari eta afrikatueta lepokariaren eta apikariaren arteko bereizkuntzak dituen zailtasun fonetiko-fonologikoak (ikus 2.1) gainditu behar lituzke, bereizkuntza egiten ez duten hizkera bat duten lekuan bizi ez bada behintzat. Izan ere, ikaslea txistukariok bereizten ez dituzten lekuren batean ari bada ikasten, bertako hizkeradunek bezala ahoskatzea oinarrizko gaitasuntzat hartzea egoki iruditzen zaigu. Haatik, sei txistukariak bereizten dituzten hizkera baten tokian ikasiz gero, behar bezala bereiztea beharrezko ikusten da lepokari/apikari bereizkuntzak hizkera horietan duen garrantzi fonologikoagatik. Halaber, komenigarria litzateke Gasteiz edo Tuteran bezalako herri hizkerarik ez duten lekuren batean i(ra)kaste denean ere sei txistukariko sistema izatea oinarrizko. Izan ere, Oñederrak (2019: 2) azaldu bezala, garrantzitsua da euskararen ahoskeraren aldakortasun indartzailearen alde egitea, EBAZ arauak proposatzerakoan egin bezala, galtzen ari den bereizketa fonemiko horren alde eginez. Horrez gain, a) puntuan aurreratu moduan, txistukariak apikari nahiz lepokari ekoizteko beharrik ez dutenen artean ere ohartzeko gaitasuna, jada, maila honetan landu beharko litzateke.

### 4. Azken helburua.

Ahoskeraren ikasketaren azken helburua litzateke hau. Maila honi legokiokeena euskal hiztun orok ahoskera zaindurako egin behar lukeen bezala EBAZ arauak betetzea litzateke. Euskara H2 duen hiztunak jada maila aurreratuan ari denean, jendaurrean jarduteko ahoskera zaindu beharko balu izan beharko lukeen maila da beraz. Oñederraren (2019: 3) esanetan 1998ko Euskaltzaindiaren arauak proposatzeko hatsarre fonologiko izan zen ezin zaiola eskatu euskal hiztunari bere fonema biltegian ez duen unitaterik erabil dezan. Horri dagokionez, EBAZ arauen proposamenean hiru salbuespen daude hauen arrazoia euskararen fonemen galerari aurre egitea izanik: lepokari/apikari bereizkuntza egitea, [r] hobikari ahoskatu beharra (frantsesetikako [R] ubularra arbuiatuz) eta albokari palatala hobestea [ʎ] (“yeismo” deitzen denaren aldean). Gaztelania H1 duen hiztun berria ere maila aurreratuan dabilenean txistukarietan lepokariak eta apikariak bereizten saiatu behar litzateke euskararen ahoskera zaindurako.

Adibide honetan txistukariekin egin dena proposamen osoago baterako gainerako hots eta hots bilkuretara zabaldu beharko litzateke ondorengo lan batean. Badirudi, interesa batez ere bigarren eta hirugarren mailak ongi zehazteak izango duela, hor baitago hiztun berriek gutxieneko maila bat hartu eta euskaraz hitz egiten hasi eta jarraitzeko

beharrezkoa den ahoskera maila. Halaber, interesekoa da azken bi mailek nolabait euskararen aldakortasun estilistikoarekin bat egitea, herri hizkeretan izan beharreko ahoskeratik ahoskera zaindukora eta alderantziz aldatzen ikasteko egokia izan baitaiteke. Esan nahi baita, bi gaitasun maila horiek irakaskuntzan bereizteak geroko hiztun berrien jardunean mesedegarri gerta daitezke estilo aldaketa batekin lotuta ikasten badituzte hasieratik. Horrela, irakaskuntzaren bidez aldakortasun estilistikorako bidea erraztu eta Oñederra eta besteak (2015: 10) aipatzen duten aldagarritasun disfuntzionala sortzeko arriskua gutxitu daiteke, erregistro maila zaindua egokiera guztietarako erabiltzea alegia.

Azken helburua ahoskera arauekin lotzen da guztiz eta EBAZ arauak jadanik baditugunez, irakaskuntzaren aldetik egin beharrekoa argiago dagoela dirudi. Besteak beste argi dago, zein hots gaitzetsi eta zein hobetsi behar den edota bilkuretako zein ahoskera den zuzenena maila horretan.

Bestalde, H2rako aurreratzen denak euskararen estandartze ahozkoari ere lagun diezaioke, eta horretan badago, bai, zer landua. Ezin ahantz dezakegu H2 baten ahoskera menperatzeaz ari garela hizkuntza hori normalizatu gabe dagoen leku eta une batean. Horregatik, norbere hizkuntzaren estandarren ahoskeraren irakaskuntza ere kezka eta interesa sortzen duen gaia da. Hori bera, hein batean bigarren hizkuntza bat ikastea bezalakoa da eta (Oñederra, 2019: 4). Alor horretan, egungo hiztunok ditugun gabeziak ezagunak dira (ikus Oñederra eta beste (2015) eta Oñederra (2019) besteak beste).

#### **4. Ondorioak**

Lan honetan erakutsi da, gaztelania hiztunarentzat, euskarazko ahoskera egoki bat lortzea teorikoki ez dela hain erraza. Horretan, batik bat, euskarak ez bezala gaztelaniak duen azentuera erregular eta homogeenak zein gaztelaniak ez dauzkan euskararen fonemek eragiten dute.

Hala ere, ikusi dugu euskararen irakaskuntzan, ahoskerari dagokionez, gutxieneko batzuk jartzeak euskara H2tzat ikastea eta irakastea erraz dezaketela. Halaber, hotsen lehentasunak zehazteak hiztunaren ahoskera mailak bereiz ditzake, horrela, aldakortasun estilistikorako bidea erraztuz hiztun berriari.

Bestalde, lehentasun horiek ez lukete zentzurik irakaskuntzak hasiera hasieratik prosodia aintzat hartuko ez balu, ahoskeraren eragile nagusi izanik, ez baitago kontsonante eta bokalik prosodiarik gabe. Horretarako, ahoskera esaldi mailan landu beharko litzateke gutxienez. Ahozkotasunaren bidez landuz gero, esaterako elkarriketa txikien bidez, hizkuntza era naturalean, alegia, prosodian landuko da. Esan dugu

horrelako irakaskuntzak kontsonante eta bokalak egoki ahoskatzen ikasteko aukerak areagotzen dituela iradokiz, gainera, ahoskera landu daitekeela erregela eta araurik irakatsi gabe.

Beraz, irakaslearen papera funtsezkoa da, ikasleek ez dute zertan arau eta erregelarik buruz ikasi behar, irakasleak erakutsi behar die ikasleei horien arabera ahoskatzen. Hartaz, ikasleari ahoskera eredu egoki bat emateko gai izateko, beharbada, irakasleek bai ikasi beharko dituzte arau eta erregelak eta irakasleak jakin beharko du zein diren euskararen ahoskera ikasteen fonemen arteko lehentasunak.

Dena den, hori guztia proposamen praktiko bat ontzeko bidean lehen urrats teorikoa besterik ez da. Eta zalantzarik ere ez dago proposamenetan eta ahoskera irakasteko metodoetan hobetu behar denik, egitekoa badago eta ez gutxi. Horretarako, besteak beste, komenigarria izango da etorkizuneko lan sakon eta luzeago batean bigarren hizkuntzen ahoskeren irakaskuntzaren gainean dauden argitalpen eta jardunaldiak sistematikoki arakatu eta ikertzea. Baina, batez ere, ahoskerari dagozkion garrantzia eta kezka eskaini beharko zaizkio. Ahoskeraz dugun kontzientzia areagotu egin beharko da euskara osoki bizindartu nahi bada, Oñederraren aburuz ahoskera baita erdaren sarleku babesgabeena (2019: 1).

## Erreferentziak

- Baudouin de Courtenay, J. [1895] 1972. An Attempt at a Theory of Phonetic Alternations. *A Baudouin de Courtenay Anthology*, E. Stankiewicz (itzl.). Bloomington: Indiana University Press, 144-212.
- Cuenca Villarín, M. H. [Euskaltzaindia]. (2019/II/14). Irakats al daiteke ahoskera? *Eta ahoskera zer?* Jardunaldia. Hemendik jaso: <https://www.youtube.com/watch?v=llVwgEqjly0&list=PLShXIrPR19GxEJV1eStIY3UycoQZbKS6P&index=6> (Azken kontsulta: 19/07/15).
- Donegan, P. J. 1995. The innateness of phonemic perception. In V. Samian & J. Schaeffer (arg.), *Proceedings of the 24th Western Conference on Linguistics*. Fresno: California State University, 59-69.
- Donegan, P. J. & Stampe, D. 1979. The Study of Natural Phonology. In D. A. Dinnsen (arg.), *Current Approaches to Phonological Theory*. Bloomington: Indiana University Press, 126-173.
- 1996. Rhythm in Holistic Typology. *Workshop on Typology and Naturalness* mintegian aurkeztutako hitzaldia, SLEren 24. biltzarrean aurkeztua. Klagenfurt, IX.5.
- Euskaltzaindia. 1998. Euskara batuaren ahoskera zaindua. *Euskera* 43 (2), 485-490.
- Gil Fernández, J. 2007. *Fonética para profesores de español: De la teoría a la práctica*. Madril: Arco/Libros.
- Hualde, J. I. 2005. *The Sounds of Spanish*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Marin, J. 2015. Esatearen ederra. Agertokitik ikasgelara. *Euskera* 60 (2), 451-476.
- Oñederra, M.L. 1998. Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak. *Euskera* 43 (2), 439-449.
- 2004. *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: UPV/EHU.
- 2012. Sobre la deslateralización de las palatales o ‘yeísmo’. In *El castellano en el País Vasco*. B. Camus & S. Gómez, (arg.). ASJUren gehigarriak LXX, 139-154.

- 2015. Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan. In M-J- Ezeizabarrena & R. Gómez, *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. Bilbo: UPV/EHU, 491-499.
- (Inprimategian). Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz. *Eta ahoskera zer?* jardunaldia. Euskaltzaindiaren argitalpen batean kaleratuko da.
- Oñederra, M.L.; Elordui, A., Epelde, I.; Etxeberria, P.; Jauregi, O. & Salaberria, J. 2015. Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena. (Ahoskerak axola du). *Euskera* 60 (2), 499-531.
- Oñederra, M.L.; Jauregi, O. & Epelde, I. 2014. Hiztunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania. *Lapurdum* 18, 75-95.
- Rindal, U. 2013. *Meaning in English.: L2 attitudes, choices and pronunciation in Norway*. Doktorego tesia. Oslo: Universitetet i Oslo.
- Šimáčková, Š. & Podlipský, V. J. 2015. Pronunciation of L2 sounds at word boundaries: Stop-Stop sequences in Czech English. *EPIP4 4th International Conference on English Pronunciation: Issues & Practices. Prague, May 21-23*, 139-142.